

1. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan: «Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute...». Zer errekurtso aurkezteko aukera izango dute interesdunek?

- a) Erregu-errekurtsoa.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa.
- c) Babes-errekurtsoa.
- d) Kasazio-errekurtsoa.

2. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1. artikuluan, zein da legearen xedea?

- a) Partzuergo juridikoen kontratazioa.
- b) Sektore publikoko kontratazioa.
- c) Funtzionarioen kontratazioa.
- d) Sektore publikoaren dirulaguntzak.

3. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 69. artikulua arabera, funtzionario publikoei duten lanpostuaren arabera ordainsaria ematea zer da?

- a) Lizentzia bat.
- b) Dispentsa bat.
- c) Zerbitzu berezi bat.
- d) Eskubide bat.

4. Kontuan harturik 3. artikuluan ezartzen duena azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoak, zein da edo dira Euskal Autonomia Elkarteko hizkuntza ofiziala(k)?

- a) Euskara eta gaztelania.
- b) Euskara.
- c) Gaztelania.
- d) Euskara, gaztelania eta lurralde bakoitzeko euskalkiak.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 foru arauaren 21. artikulua arabera, nork hautatuko du diputatu nagusia?

- a) Aldundiaren Gobernu Kontseiluak.
- b) Aldundiaren batzorde eskuordetuak.
- c) Batzar Nagusiek.
- d) Batzorde Iraunkorrak.

6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, zein da arau horren helburu nagusia?

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko beharrezko diren baldintzak bermatzea.
- b) Bizkaian genero-berdintasunaren arloan jarduteko gomendioak sortzea.
- c) Bizkaian genero-berdintasunaren arloko jarduera-protokoloak sortzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

7. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 8. artikuluan, zein da Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskuduna Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako abian jartzen dituzten foru politikak bultzatu eta koordinatzeko, baita horien jarraipena zein ebaluazioa egiteko ere?

- a) Ogasuneko diputatua.
- b) Lehendakaritzako diputatua.
- c) Ahaldu Nagusia.
- d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa.

8. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluekin bat, zein dira ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarriak?

- a) Pertsonaren duintasuna eta pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinak.
- b) Nortasunaren garapen librea.
- c) Legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

9. 1978ko Konstituzioak zer hartzen du ordenamendu juridikoaren balio gorentzat?

- a) Askatasuna, berdintasuna, justizia eta pluralismo politikoa.
- b) Askatasuna, senidetasuna eta berdintasuna.
- c) Senidetasuna eta ekitatea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

10. 1978ko Konstituzioaren 149.3 artikulua araberaz, nori egokitu ahal zaizkio Konstituzio honek espresuki Estatuari esleitzen ez dizkion gaiak?

- a) Autonomia-erkidegoei, bakoitzaren estatutuaren arabera.
- b) Autonomia-erkidegoei esleituta daudela ulertuko da, beren legeria autonomikoaren esparruan.
- c) Autonomia-erkidegoei esleituta daudela ulertuko da, eskuordetzaren bidez.
- d) Autonomia-erkidegoei esleituko zaizkie, hitzarmen bidez.

11. 1978ko Konstituzioaren 143. artikulua araberaz, autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira:

- a) Historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri erkideak dituzten probintzia mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probintziak.
- b) Probintzia mugakide guztiak.
- c) Probintzia mugakide guztiak eta uharte-lurraldeak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

12. Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 7.1. artikulua araberaz, nork du euskal herritar izaera politikoa?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan herrikidetasun zibila dutenek.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko edozein udalerritan jaiok.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

13. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean, zer gaitan dagokie Bateango Erakundeen legebideak bere mugartean egiteratzea Kondaira-Lurraldeei?

- a) Herrilan eta Zerbitzuen Foru-Egitamua idaztea eta ontzat ematea, Toki-Erakundeekiko teknikazko laguntza eta aholkularitza.
- b) Probintzia eta udal-jabetzapeko ogasunentzako jaurpideak, ogasun hoiiek herri-baliapidetarakoak, ondarezkoak, Udalak berak ez bestek erabiltzekoak nahiz udalkideek erabiltzekoak izan.
- c) Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-sordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.
- d) Gizarte-sorozpidetza, Euskal Herri Osorako Erakundeek artez ihardutzearen kaltetan gabe.

14. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak non jasotzen dira 1978ko Espainiako Konstituzioan?

- a) Atariko Tituluan.
- b) I. tituluan.
- c) IV. tituluan.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15. Nork osatzen du Eusko Legebiltzarra?

- a) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak.
- b) Lurralde historiko bakoitzeko biztanleriarekiko proportzionala den ordezkari-kopuruak.
- c) Lurralde historiko bakoitzeko udalerriekiko proportzionala den ordezkari-kopuruak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

16. Printzipio hauetatik zein aurreikusten da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean?

- a) Sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea.
- b) Ekintza positiboa.
- c) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

17. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua nori aplikatuko zaio, kontuan harturik 2. artikuluan ezarritakoa?

- a) Hirugarren sektoreko erakundeei.
- b) Irabazteko asmorik gabeko erakundeei.
- c) Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartuta dauden eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatuta dauden zerbitzu eta prestazioei.
- d) Diru-sarrerak bermatzeko errentari.

18. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 3. artikulua ezartzen duenez, zein da prestazio eta zerbitzuen zorroaren helburua?

- a) Gizarte Zerbitzuen Sistemako zentroak eta prestazioak arautzea.
- b) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 2. artikuluan aitortzen den eskubide subjektiboari edukia ematea eta mugatzea, eta eskubide hori baliatzea.
- c) Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoak ezartzea.
- d) Gizarte-zerbitzuen hirugarren sektorearekiko lanbidetza sustatzea.

19. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 4. artikulua ezartzen duenez, zer biltzen da prestazio eta zerbitzuen zorroan?

- a) Autonomia pertsonala sustatzeari buruzko Legearen prestazioak eta zerbitzuak bakarrik biltzen dira.
- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan zerbitzu eta prestazio ekonomiko berak biltzen dira.
- c) Une bakoitzean indarrean dauden prestazio ekonomikoak bakarrik biltzen dira.
- d) Zentroetako zerbitzuak bakarrik biltzen dira.

20. Zer hartuko du barne esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko prestazio teknikoak?

- a) Soilik estimulaziorako edo errehabilitaziorako esku-hartzea, esku-hartze okupazionala, hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala.
- b) Soilik esku-hartze sentzoriala, esku-hartze soziolaborala edo esku-hartze soziofamiliarra.
- c) Soilik estimulaziorako edo errehabilitaziorako esku-hartzea, hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

21. Zer premien balioespen motak bereizten dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan?

- a) Balioespen soziala, balioespen ekonomikoa eta harreman-balioespena.
- b) Balioespen sakona eta balioespen psikologikoa.
- c) Premien hasierako balioespena, balioespen espezializatua eta jarraipen-balioespena.
- d) Balioespen indibiduala, familiaren balioespena eta komunitatearen balioespena.

22. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 15. artikuluan, nola hasi ahal izango da zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura?

- a) Interesdunak eskatuta eta/edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren estaldurapeko kontingentzia edo egoeretako baten eraginpean dagoela dakien hirugarren batek eskatuta.
- b) Interesdunak eskatuta, ofizioz administrazio eskudunaren bidez edo agintaritza judizialak eskatuta, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan.
- c) Soilik interesdunak edo haren ordezkariak eskatuta.
- d) Mendekotasuna, babesgabetasuna, bazterkeria edo desgaitasuna duen edozein pertsonak edo administraziok eskatuta.

23. Kontuan harturik zer arautzen den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 1.2 fitxan, hauetako zein EZ da etxez etxeko laguntza-zerbitzuari esleitutako prestazio bat?

- a) Jarraipen-balioespena.
- b) Premien hasierako balioespena.
- c) Lagun egite soziala.
- d) Informazioa.

24. Honako hauetako zein EZ da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa jasotzeko betekizuna?

- a) Enplegua lortzeko zailtasunak izatea, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako txostenaren bitartez egiaztatuta.
- b) Laguntza hori aurretik jaso ez izana.
- c) Genero-indarkeriaren biktima izatea ziurtatzea, kondena-epaiaren bidez, indarreko babes-aginduaren bidez eta, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostenaren bidez.
- d) Eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko edozein udalerritan errolatuta egotea.

25. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 28. artikuluan, urgentziatzko lehen arretan zer egin behar da?

- a) Kasu guztietan, gertatu den tokian udalaren gizarte-zerbitzuek esku hartzea eskatzen du.
- b) Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eskatzen du, irekita dauden ohiko ordutegian.
- c) Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren esku-hartzea eskatzen du udalaren gizarte-zerbitzuak irekita dauden ohiko ordutegitik kanpo.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

26. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 33. artikuluan, zein dira udal eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak?

- a) Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua, egoitza-zentroei eta eguneko zentroei laguntzeko zerbitzua.
- b) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua - ELZ, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eta zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- c) Familian esku hartzeko eta bitartekaritza-lanak egiteko zerbitzuak, telelaguntza-zerbitzua eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua - ELZ.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

27. Noren eskumena da deribazio judizialaren bidezko Familia Elkargunea - FE?

- a) Foru Aldundiarena.
- b) Udalarena.
- c) Eusko Jaurlaritzarena.
- d) Sistema judizialarena.

28. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen arabera, norekin koordinatuko da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeen Errolda?

- a) Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroarekin.
- b) Boluntario Erakundeen Erroldarekin.
- c) Euskadiko fundazioen erregistroarekin.
- d) Gizarte Ekimeneko erakundeen erroldarekin.

29. Gizarte-lanean, dokumentu batean jasotzen da egoera jakin bati buruzko azalpen-laburpena, helburu jakin bat lortzeko; dokumentu hori azterketa eta balorazioa egin eta irizpen profesionala jaso ondoren egiten da. Nola deritzo dokumentu horri?

- a) Datuen analisia.
- b) Txosten soziala.
- c) Proiektu soziala.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

30. Gizarte-lanean, elkarrizketa indibidualean berau definitzen duten eta ezaugarri propio gisa aldarrikatzen diren alderdi batzuk aipa ditzakegu:

- a) Hitzaren bidez ezartzen da.
- b) Arazo-egoera irekitzea eta ulertzea errazten du.
- c) Ez da helburu bat, aldaketarako bitarteko bat baizik.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

31. Zein da gizarte-laneko profesionalak bakarrik egin eta sinatzen duen eta dokumentu-tresna gisa balio duen irizpen teknikoa?

- a) Fitxa soziala.
- b) Balorazio sozialaren eskala.
- c) Txosten soziala.
- d) Genograma.

32. Nola definitzen da ebaluazioa gizarte-lanean?

- a) Lanbide-heziketako eta kontroleko metodo bat, gizarte-lana sakonago garatzeko balio duena.
- b) Asmoen harmonizazioa, talde baten ahaleginari eta lanari batasuna eta koherentzia emateko.
- c) Prozesu kritiko bat, proposatutako planean lortutako aurrerapenak egiaztatzeko, onespenerari edo gaitzespenari dagokionez, eta, ondorioz, etorkizuneko jardueretan egin beharreko aldaketak egiteko.
- d) Emaitzen esanahiari buruzko azken laburpena.

33. Gizarte-lanean, zer dira emaitzen adierazleak?

- a) Jarduera-programa baten helburuen lorpena ebaluatzeko aukera ematen dutenak.
- b) Produktibitatea, emandako zerbitzua, jarrerak eta ezagutzak neurtzeko aukera ematen dutenak.
- c) Aldez aurreko programazio baten arabera lortu dena une jakin batean alderatzeko aukera ematen dutenak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

34. Ebaluazioak garrantzia hartzen du gizarte-zerbitzuen eremuan. Zergatik?

- a) Baliabide mugatuaren esleipena definitzeko bide bakarra da.
- b) Helburuak betetzen laguntzen du.
- c) Arazo-egoeraren diagnostikoa egiten du.
- d) Erabiltzaileek jasotzen dituzten ekintzen balioa eta zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko bide bat da.

35. Gizarte-lanean, zer da elkarrizketaren teknika?

- a) Dokumentazio-teknika bat.
- b) Lan profesionalaren tresna bat; haren bidez, komunikazioa ezartzea eta informazioa lortzea ahalbidetzen da.
- c) Ezagutza profesionala azaltzeko elkarrizketa zuzendua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36. Familiekiko gizarte-lanean, eskaria hainbat kanalen bidez detektatu eta jasotzen da:

- a) Familiako kideren batek edo batzuek adierazitako eskariaren bidez.
- b) Kanpoko gizarte-eragileen bidez, hala nola bizilagunak, gizarte-boluntarioak eta herritarren segurtasuneko eragileak.
- c) Zerbitzu espezializatuen bidez.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

37. Zer da gizarte-lanaren xedea?

- a) Lan eta ekintza profesionalaren hartzaileak.
- b) Pertsonak deskribatzen duen egoera.
- c) Gizabanakoak, taldeak edo komunitateak bizi duen arazo-egoera.
- d) Arazoaren azterketa, diagnostikoa, gauzatzea eta ebaluazioa.

38. Gizarte-lana zergatik da diziplina zientifiko bat?

- a) Lantzen dituen arazoak kontzeptualki maneiatzen dituelako.
- b) Bere garapenean bildutako informazio kopuru handia duelako.
- c) Gizarte-langileek idatzitako bibliografia zabala dagoelako, gizarte-jardunbidetik sortua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39. Gizarte-lanaren arloan, zer da elkarrizketaren teknika?

- a) Harreman bat.
- b) Teknika bat.
- c) Prozesu bat.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

40. Zertan datza gizarte-lan komunitarioaren garapena?

- a) Gizarteratzeko arazoak dituzten gizabanakoekin lan egiten da.
- b) Erakundeekin lan egiten da, beren helburuak errealitate sozialera egokitzeko.
- c) Erabiltzaileei laguntzen zaie zerbitzuen programazioan parte hartzen eta beren beharrak adierazten.
- d) Prozesu horren bidez, herritarren talde batek bere gobernuaren ahaleginekin bat egiten du bere baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko, komunitatearen bizitzan integratzen da eta gizarte-aurrerapenean laguntzen du.

41. Gizarte-lan komunitarioan, gizarte-lan maila indibiduala, familiarra eta taldekoa sartzen dira?

- a) Ez beti.
- b) Ez.
- c) Bai.
- d) Gizarte-laneko profesionalaren irizpidearen arabera.

42. Nola egin behar da ikuskapena gizarte-lanaren garapen profesionalaren arloan?

- a) Programatuta, egituratuta eta norabide bakarrean.
- b) Programatuta, homologatuta eta arbitrarioki.
- c) Operatiboki, antolatuta eta era parte-hartzailean.
- d) Lanbidean jardun aurretik.

43. Gizarte-laneko kode deontologikoaren arabera, zein da pertsonaren askatasunaren eta, ondorioz, bere ekintza eta erabakien erantzukizunaren adierazpen gisa definitzen den printzipio orokorra?

- a) Askatasuna.
- b) Indibidualizazioa.
- c) Berdintasuna.
- d) Autodeterminazioa.

44. Zein da gizarte-lanaren kode deontologikoa?

- a) Gizarte-langileen lanbide-jarduna gidatu behar duten balioen, printzipioen eta arauen multzoa.
- b) Gizarte-langileen lanbide-jarduna gidatu behar duten legeen eta dekretuen multzoa.
- c) Gizarte-langileen lanbide-jarduna gidatu behar duten protokoloen eta prozeduren multzoa.
- d) Gizarte-langileen lanbide-jarduna gidatu behar duten printzipioen eta arauen multzoa.

45. Desgaitasunagatiko kotizaziorik gabeko pentsioa emateko, betekizun hauetako zein EZ da beharrezkoa?

- a) Hemezortzi urte edo gehiago eta hirurogeita bost baino gutxiago izatea.
- b) Espainiako lurraldean bizitzea eta 5 urtez hala egin izana; horietatik bi elkarren segidakoak eta eskaeraren dataren aurrekoak izan behar dira.
- c) % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua izatea.
- d) Eskaera egin baino sei hilabete lehenago gutxienez Bizkaiko udalerrri batean erroldatuta egotea.

46. Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko ereduak aurreikusten duenez, arlo hauetan adituak diren profesionalek koordinatuta egingo dute lan:

- a) Osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema.
- b) Osasun-sistema eta ospitale-sistema.
- c) Osasun-sistema eta hezkuntza-sistema.
- d) Osasun-sistema, hezkuntza-sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema.

47. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, mendetasun-egoeran dauden pertsonak indarrean dagoen legerian ezarritako eskubide guztiak izango dituzte, bai eta, bereziki, honako hauekoren bat ere:

- a) Beren ongizatearekin zerikusia duten politiken zehaztapen eta aplikazioan parte hartzeko eskubidea, bai nork bere kabuz edo elkarrekin bidez.
- b) Beren pertsonaren eta ondasunen tutoretzari buruz erabakitze eskubidea, nahiz eta haien autogobernu-gaitasuna narriatuta dagoela egiaztatzen den.
- c) Ondare-eskubideak erabat gauzatzeko eskubidea.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

48. Printzipio hauek zeintzuk ditu iturburu Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak?

- a) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak eskainiko dituen zerbitzuak publikoak izango dira.
- b) Ekimen pribatuak ere emango ditu autonomiaren aldeko eta mendetasunari arreta eskaintzeko zerbitzuak.
- c) Legeak ez du aurreikusten ekimen pribatuaren parte-hartzerik.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

49. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duen uztailaren 23ko 103/2013 Foru Dekretuaren 13. artikulua arabera, zerk eragingo du prestazioa jasotzeko eskubidea aldi baterako etetea?

- a) 24 orduko egoitza-arreta iraunkorreko zerbitzu batean sartzeak.
- b) Foru sareko egoitza-unitate soziosanitarioetan edo osasun-zentroetan sartzeak, egonaldia urtean 30 egunekoa edo gehiagokoa bada.
- c) Foru sareko egoitza-unitate soziosanitarioetan edo osasun-zentroetan sartzeak, egonaldia urtean 25 egunekoa edo gutxiagokoa bada.
- d) Autonomia pertsonala sustatzeko zentro batean sartzeak.

50. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, noiz berrikusi ahal izango da behin-behinekoa ez den mendetasun-gradua?

- a) Azken baloraziotik urtebete igaro denean.
- b) Familia-medikuak diagnostiko berri bat egiten duenean.
- c) Mendetasun-egoerak onera edo txarrera egiten duenean.
- d) Egoera ekonomikoa aldatzen denean.

51. Kontuan harturik zer aurreikusten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 26ko 192/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita zaintzaileen estatutua eta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa, zeintzuk eskubide izango dituzte zaintzaileek estatus hori aitortzen zaien unetik bertatik?

- a) Prestakuntza, partaidetza, prebentzio, autodeterminazio eta koordinazio eskubidea.
- b) Informazio, prestakuntza, atsedeen, ergonomia eta autodeterminazio eskubidea.
- c) Atsedeen, prestakuntza, informazio, ergonomia eta gizarte-aurreikuspen eskubidea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

52. Mendekotasunaren ebaluaziorako eta orientaziorako prozedura arautzen duen urriaren 11ko 153/2016 Foru Dekretuaren arabera, zein kasutan izan ahalko da behin-behinekoa prozedura ebazten duen foru-agindua?

- a) Desgaitasun-balorazio bat ebazteko duenean.
- b) Interesdunak berak eskatzen duenean.
- c) Hiru urtetik azpikoen kasuan.
- d) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskatzen duenean.

53. Zer esan nahi dugu «mendekotasun moderatua» diogunean?

- a) I. graduako mendekotasuna.
- b) II. graduako mendekotasuna.
- c) III. graduako mendekotasuna.
- d) Ezagutzeko moduko gradurik gabeko mendekotasuna.

54. Zaintzaileen estatutua eta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen dituen abenduaren 26ko 192/2018 Foru Dekretuaren arabera, zer baldintza dago familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren onuradun izateko?

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar da, gutxienez 3 urteko antzinatasunarekin.
- b) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari ohiko bizilekuan eman behar zaizkio arreta eta zaintza-lanak; hori txosten sozialaren bidez egiaztatuko da. Salbuespen izango dira ospitalean egindako 60 egunetik beherako egonaldiak.
- c) Mendekotasun-egoeran dagoenari ematen zaizkion arretak eta zaintza-lanek pertsona horren beharretara egokituta egon behar dute, hark duen mendekotasun-gradu eta -puntuazioaren arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

55. Desgaitasun-gradua behin-behinekoa ez denean, haren berrikuspen orokorra egiteko eskatu ahal izango da egoera okerragotuz edo hobetuz gero. Gutxienez zenbat denbora igaro behar da berrikuspena egiteko?

- a) 1 urte.
- b) 2 urte.
- c) 5 urte.
- d) 6 hilabete.

56. Hauetatik zeinekin da bateragarria laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa?

- a) Telelaguntzarekin.
- b) Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroekin.
- c) Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroekin.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

57. I.1 graduko balorazioa duen pertsona baten kasuan, nork hornitu behar du autonomia-mugek eragindako premiei erantzute aldera eguneko zentro batean sartzeko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa?

- a) Eusko Jaurlaritzak.
- b) Foru-aldundiek.
- c) Pertsona hori erroldatuta dagoen udalak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

58. Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuaren arabera, zer tresna teknikok jasotzen du arreta ematen den zentro edo zerbitzuan erabiltzailearekin egiten den esku-hartzearen plangintza?

- a) Arreta pertsonalizatua emateko planak.
- b) Arreta eskaintzeko banakako programak.
- c) Esku hartzeko banakako planak.
- d) Arreta eskaintzeko programa pertsonalizatuak.

59. Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuaren arabera, zeintzuk dira gizarte-inklusioaren arloko arreta espezializatuko programak?

- a) Egonaldi ertaineko programa eta egonaldi luzeko programa.
- b) Eguneko zerbitzuko arreta-programa eta egoitza-zerbitzuko arreta-programa.
- c) Egonaldi laburreko programa eta programa intentsiboa.
- d) Intentsitate ertaineko komunitate-ingurunean laguntzeko programa eta intentsitate handiko komunitate-ingurunean laguntzeko programa.

60. Uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren arabera, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren 17. dimentsioak hizpide hartzen ditu harreman sozialak izateko aukera eta gizartean parte hartzea. Zein arlo dagokio dimentsio horri?

- a) Ekonomia, lan eta egoitza arloa.
- b) Bizikidetzaren arloa.
- c) Arlo soziala.
- d) Pertsonalaren arloa.

61. Uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak araututako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren arabera, nolakoa izan daiteke gizarte-bazterkeria?

- a) Txikia, ertaina, handia.
- b) Arina, apala, larria.
- c) Egoitza arlokoa, bizikidetzar arlokoa, pertsonala, soziala.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

62. Zein prestazio tekniko egongo dira lotuta gizarte-inklusioren arloan gazteei arreta emateko esku-hartze programa espezifikoekin?

- a) Lagun egite soziala.
- b) Gizarte eta hezkuntzar arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.
- c) Bitartekaritza-bitartekotza.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

63. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak araututako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotakoaren arabera, hauetatik zeintzuk dira gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsoneri arreta ematen dieten foru-eskumeneko zerbitzuak:

- a) Gizarte eta hezkuntzar arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua.
- b) Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
- c) Aisia eta astialdiko zerbitzua.
- d) Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.

64. Uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak araututako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren arabera, haueetatik zein dira 1. irizpidearen xede?

- a) Autonomia pertsonala gutxitzea.
- b) Autonomia ekonomikoa gutxitzea.
- c) Gabezia pertsonal eta harremanezkoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

65. Gizarte-inklusioko laguntza berezia arautzen duen martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuaren arabera, bizikidetz-unitate berean pertsona batek baino gehiagok izanez gero gizarte-inklusioko laguntza berezien titular izateko aukera, nori emango zaio laguntza?

- a) Oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako diagnosian oinarrituta proposatuko duten pertsonari.
- b) Bizikidetz-unitateko kide guztiei.
- c) Osasun-zentroak proposatuko duen pertsonari.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

66. Haueetatik zein dira haurren eta nerabeen aurkako genero-indarkeriaren ondorio?

- a) Segurtasunik ezaren sentimendua.
- b) Bat-bateko umore-alterazioak.
- c) Aita edo ama galtzeko beldurra.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

67. Nork bermatu behar du behar beste harrera-baliabide daudela etxeko tratu txarren biktimek dituzten alde baterako babes- eta bizileku-premiei erantzuteko?

- a) Eusko Jaurlaritzak.
- b) Toki- eta foru-administrazioek.
- c) Gizarte Zerbitzuen Ministerioak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

68. Zer jaso behar du etxeko indarkeriaren biktima bat babesteko aginduak?

- a) Arlo zibileko kautela-neurriak.
- b) Gizarte arloko kautela-neurriak.
- c) Zigor arloko kautela-neurriak.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

69. Zeintzuk izan ohi dira nerabeek gurasoen aurka egindako indarkeria pairatzen duten familien ezaugarriak?

- a) Aurretik etxeko indarkeria jasan duten amak gurasoen aurkako indarkeriaren biktima izaten dira maiz.
- b) Nerabeek atxikimendu segurua garatu dute haurtzaroan.
- c) Haurrak abandonuan eta permisibitatean hazten dituzten familiak izaten dira.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

70. Genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legean ezarritakoaren arabera, hauetatik zein eskubide dute genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek?

- a) Salaketa jarri aurretik doako aholkularitza juridikoa jasotzeko eskubidea.
- b) Salaketa jarri ondoren beren egoerara egokitutako lan bat berehala eskuratzeko eskubidea.
- c) Indarkeriaren biktima den emakumeak aribidean dituen ekintza judizial guztiak babes-agindua eman arte etenda edukitzeko eskubidea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

71. Zeintzuk dira familia-harreraren modalitateak?

- a) Urgentziazkoa, aldi baterakoa eta iraunkorra.
- b) Berehalakoa, aldi baterakoa eta iraunkorra.
- c) Urgentziazkoa, sinplea eta iraunkorra.
- d) Berehalakoa, behin-behinekoa eta iraunkorra.

72. Erakunde publikoak adopzio-eskatzaileen egokitasuna baloratzean:

- a) Ezin izango dira adopziorako egokitzat jo guraso-ahalaz gabetuta daudenak.
- b) Aztertu eta ebaluatu egingo dira adopzioa eskatu duten pertsonen egoera pertsonala, familiarra, harremanezkoa eta soziala.
- c) Erakunde publikoak antolatutako informazio- eta prestakuntza-saioretara joan beharko dute adopzio-eskatzaileek.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

73. Haur Zerbitzuan irekitako espediente baten balorazio eta esku-hartze prozesuan, zeintzuk dira familia-gaikuntzaren pronostikoa orientatzeko eta baloratzeko irizpideak?

- a) Gurasoek arazo-egoerari buruz duten kontzientzia eta aldatzeko motibazioa.
- b) Egindako esku-hartzeei emandako erantzuna, aldatzeko motibazioa eta inplikazio-maila.
- c) Arazoari buruzko kontzientzia, aldatzeko motibazioa eta erakunde publikoarekiko lankidetzak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

74. Adingabe batek berehalako arreta behar badu, zer figura hartuko du kontuan erakunde publikoak?

- a) Aldi baterako zaintza.
- b) Behin-behineko zaintza.
- c) Borondatezko zaintza.
- d) Tutoretza, presazko prozeduraren bidez.

75. Adingabe baten adopzioa eratzten denean, epaileak ezarri ahal izango du adingabearen eta haren familia biologikoaren arteko harremana mantentzeko eskatuta? Nork eskatuta?

- a) Familia biologikoak eskatuta.
- b) Fiskaltzak eskatuta.
- c) Erakunde publikoak edo Fiskaltzak eskatuta, adopzio-familiaren baimenaz.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

76. Zeren bidez eratzen da adingabearen adopzioa?

- a) Administrazio-ebazpen bidez.
- b) Ebazpen judizial bidez.
- c) Foru-agindu bidez.
- d) Alderdien arteko akordio baten bidez.

77. Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren arabera (aurrerantzean, BALORA), noiz aplikatzen da pertsonen eragindako babesgabezia larriko egoeren kontrako babesa?

- a) Haurra edo nerabea gaizki tratatu, bortxatu, iraindu edo mehatxatu duen pertsona (adinez heldua) tutoretza edo zaintza betetzen duen pertsona izan ez denean.
- b) Haurra edo nerabea gaizki tratatu, bortxatu, iraindu edo mehatxatu duen pertsona (adingabea edo adinez heldua) tutoretza edo zaintza betetzen duen pertsona ez denean.
- c) Haurra edo nerabea gaizki tratatu, bortxatu, iraindu edo mehatxatu duen pertsona (adingabea edo adinez heldua) tutoretza edo zaintza betetzen duen pertsona denean.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

78. Zer dio BALORAK eskekotasunari buruz?

- a) Kanean, establezimendu publikoetan edo etxebizitza pribatuetan dirua eskatuz egin daiteke.
- b) Barnean hartzen ditu «ezkutuko» egoerak, non gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea bidaltzen baitute elikagaiak edo objektuak erostera edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzera, horretarako nahikoa ez dela badakiten diru-kopurua emanez.
- c) Haur edo nerabeari balio gutxiko objektuak ematen zaizkie, erosten dituen pertsonari borondatezko zenbateko bat eskatuta sal ditzaten.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

79. BALORAREN arabera, haur edo nerabe batek pairatutako kaltea kalte esanguratsutzat har dadin, beheko zirkunstantzietatik zeintzuk agertu behar dira?

- a) Heriotzako, ezintasun iraunkorreko, edo gaixotasun eta nahaste fisiko oso larriko arriskuan jarri da haur edo nerabea.
- b) Haur edo nerabeak lesio fisikoak ditu gorputzaren zona jakin batzuetan edo ospitaleratzea edo tratamendu medikoa behar du tratu txar baten ondorioz.
- c) Haurrak edo nerabeak familiaren barruko sexu-abusua pairatu du, kontaktu fisikoarekin edo gabe.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

80. BALORAren arabera, haurtzaroko eta nerabezaroko oinarrizko premietan besteak beste zein adierazlek erakusten dute haur edo nerabeen segurtasuneko gabeziak daudela?

- a) Etxeko istripuak: istripuak edo erasoak pairatzen dituzte gainbegiratze-faltaren ondorioz.
- b) Haurra edo nerabea etengabe inplikaturik gertatzea pertsona helduek minimizatzen edo aintzat hartzen ez dituzten jokabide edo harreman arriskutsuetan.
- c) Haurrak edo nerabeak jokabide autosuntsizaile larriak edo suizidio-asmoak agertzen dituen arreta espezializatua ukatu edo atzeratzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

ERRESERBAKO GALDERAK

81. Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuaren arabera, behin erabiltzailea gizarte-inklusioaren arloko bigarren mailako arreta-zerbitzuetan sartzen denean, behaketa- eta lotura-aldi bat hasiko da. Zenbat iraungo du aldi horrek?

- a) Hilabete.
- b) Hiru hilabete.
- c) Sei hilabete.
- d) Urtebete.

82. Gizarte-inklusionarako laguntza berezia arautzen duen martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuaren arabera, Gizarte Inklusioaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako egoitza-zentro eta -zerbitzuetan artatutako pertsonen kasuan, eta zentro eta zerbitzu horietatik irten eta bizitza autonomora igarotzeko prozesua errazte aldera:

- a) Gizarte-inklusionarako laguntza berezia eskatu ahal izango da zentro eta zerbitzu horietan sartzen den egunean.
- b) Gizarte-inklusionarako laguntza berezia eskatu ahal izango da aurreikusitako irteera-data baino sei hilabete lehenago.
- c) Gizarte-inklusionarako laguntza berezia eskatu ahal izango da aurreikusitako irteera-data baino bi hilabete lehenago.
- d) Gizarte-inklusionarako laguntza berezia eskatu ahal izango da zentro eta zerbitzu horietan sartu eta hiru hilabete igaro ondoren.

83. Gradurik gabe eta 24 punturekin baloratutako pertsona baten kasuan, nork hornitu behar du autonomia-mugek eragindako premiei erantzute aldera eguneko zentro batean sartzeko Zerbitzuarekin Lotutako Prestazio Ekonomikoa?

- a) Eusko Jaurlaritzak.
- b) Foru-aldundiek.
- c) Pertsona hori erroldatuta dagoen udalak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

84. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duen uztailaren 23ko 103/2013 Foru Dekretuaren 14. artikulua arabera, zerk eragingo du prestazioa jasotzeko eskubidea iraungitzea?

- a) Zerbitzuen eta prestazioen arteko bateraezintasun-kausan sartuta egoteak.
- b) Prestazioa aldi baterako eten zenetik 6 hilabete igarotzeak.
- c) Prestazioa eguneko zentro batekin bateragarri egiteak.
- d) Egoitza-unitate soziosanitario batean 15 egunez sartzeak.

85. Zer betekizun dago GIZATEK programaren informazio, erakustaldi eta aholkularitza arloko prestazioa eskuratzeko?

- a) Edozein gradutako mendekotasuna baloratzen duen administrazio-ebazpena edukitzea, edo gutxienez % 33ko desgaitasuna jasotzen duen ziurtagiria.
- b) Gutxienez % 33ko desgaitasuna jasotzen duen ziurtagiria edukitzea.
- c) Edozein gradutako mendekotasuna baloratzen duen administrazio-ebazpena edukitzea, edo gutxienez % 45eko desgaitasuna jasotzen duen ziurtagiria.
- d) Ez da aurretiko betekizunik eskatzen, izaera unibertsala baitu.

86. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak garraio egokituko zerbitzua arautzen du. Norentzat da zerbitzu hori?

- a) Mugikortasun-muga larriak izanik II. eta III. graduko mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat.
- b) Mugikortasun-muga larriak izanik I. graduko mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat.
- c) % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna baloratu zaien pertsonentzat.
- d) I. graduko mendekotasun-egoeran egonik mugikortasun-baremoa onartu zaien pertsonentzat.

87. Nori dagokio legegintzako ekimena Euskal Autonomia Erkidegoan?

- a) Legebiltzarreko kideei.
- b) Legebiltzarreko kideei eta Jaurlaritzari.
- c) Legebiltzarreko kideei, Jaurlaritzari eta Lurralde Historikoetako erakundeei.
- d) Legebiltzarreko kideei eta Lurralde Historikoetako erakundeei.

88. Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Artatzeko arloan, zer dira Familia Iraunarazteko Programak?

- a) Udal eta lurralde mailako gizarte-zerbitzuek garatutako programak, zeinek esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala eskaintzen baitiete familiei, arrisku ertaineko edo larriko egoeran dauden haurrak edo nerabeak dituztenean, azken horiek oraindik bizi badira familiaren etxean.
- b) Lurralde mailako zerbitzuek garatutako programak, zeinek esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala eskaintzen baitiete familiei, arrisku ertaineko edo larriko egoeran dauden haurrak edo nerabeak dituztenean, azken horiek oraindik bizi badira familiaren etxean.
- c) Udal eta Lurralde mailako gizarte-zerbitzuek garatutako programak, zeinek esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala eskaintzen baitiete familiei, arrisku ertaineko egoeran dauden haurrak edo nerabeak dituztenean, azken horiek oraindik bizi badira familiaren etxean.
- d) Herritar guztientzako programak, zeinek helburu baitute familien bizi-kalitate globala hobetzea eta babesgabetasun-egoera berriak ager daitezela saihestea.

89. Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak hainbat egoitza-egitura bereizten ditu. Zeintzuk?

- a) Hezkuntza-sareko ikastetxeak.
- b) Gazte-ostatuak.
- c) Emantzipazioa prestatzeko zentroak: 20 eta 30 plaza bitarteko edukiera duten elkarbizitza-nukleoak, zeinek hezitzaileen aldizkako presentzia baitute eta laguntza eta hezkuntza arloko zerbitzuak eskaintzen baitituzte.
- d) Emantzipazio-etxebizitzak: etxebizitza arruntetan kokatuak, zeinek gehienez 8 lagunentzako edukiera baitute eta laguntza eta hezkuntza arloko zerbitzuak eskaintzen baitituzte 16 urtetik gorako adingabeentzat.

90. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 2. artikulua arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek, gaur egungo probintzien muga berberetan, osatuko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea; baita Nafarroakoak ere, baldin eta partaide izatea erabakitzen badu, honako xedapen honetan finkatutako jardunbideari jarraituz:

- a) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria.
- b) Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorra.
- c) Konstituzioaren laugarren xedapen gehigarria.
- d) Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorra.

